

**2008KO AZAROAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO APARTEKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Bi mila eta zortzia.

HASIERAKO ORDUA: Eguerdiko hamabiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Iñigo Arrese Artabe
Malu Valles Fernandez
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Arantza Gibelalde Iñurritegi
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jon Kortaberria Lasa
Josi Insausti Mujika
Begoña Lasa Royuela
Julene Hidalgo Pérez

ETORRI GABEAK: Fernando Boada Gonzalez
Alfonso Segade Gonzalez
M^a Pilar Vispo Chamosa
Manuela Uranga Segurola
Ana María Crespo Blanco
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- MOZIOA. Alkateak aurkezten duen EAeko mozioa, Cauterets-en izandako azken atxiloketei buruz.

“Frantziako Poliziak Cautereten burutu berri dituen atxiloketen aurrean, eta hauetariko bat gure herritarra dela kontutan hartuta, honako puntu hauetan oinarrituriko MOZIOA Udal osoko bilkurari aurkezten zaio:

Leire Lopez Zurutuza beasaindarraren atxiloketak gurean agertu du, berriro ere, gatazkaren gordintasuna. Bizi dugun gatazka egoera honetan espainiar zein frantziar gobernuek egiten duten errepresioaren aldeko apustuaren adierazle garbia dugu.

Atxiloketa hauek arrazoi politikoak direla medio egiten dira, oinarrizko eskubideak urratuz eta berme juridikoak ukatuz. Kasu honetan operazio mediatiko-poliziala erabiliz.

Historia luzea du gure herriak, eta luze, luzeegi, jo du gatazkak. Udal hau osatzen dugun guztiok ondo baino hobeto dakigu errepresioaren bidea ez dela bidea. Errepresioak ez dio gatazkari konponbidea ekarriko, guztiz kontrakoa, sufrimendua dakar. Gatazka gainditzeko errepresioaren aldeko apustuak gainditu behar dira.

Gatazkaren konponbidea demokraziaren aldeko apustu bat eskatzen du, guztion aldetik. Gatazkaren muin politikora jo eta konponbide demokratiko bat eman behar zaio gatazkari. Euskal herritarroi hitza eta erabakia zor zaigu, gure etorkizuna askatasun osoz eta egitasmo politiko guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatzean datza konponbidea.

Hau horrela, honako mozio hau aurkezten dugu Udal Osoko Bilkurak eztabaida eta onar dezan:

- 1. Udal honek Leire Lopez Zurutuza beasaindarraren berehalako askatasuna eskatzen du eta horrekin batera espainiar eta frantziar estatuei ideiak jartzeari eta errepresioa erabiltzeari utzi diezaiola exijitzen die.*
- 2. Egoera honetan, Leire Lopez Zurutuzaren senitartekoei gure elkartasuna eta babesa adierazi nahi diegu, eta atxiloketa hauek sortzen dituzten ondorioetan Udalaren laguntza jasotzeko konpromisoa adierazten dugu.*
- 3. Udal honek, Euskal Herriak frantziar eta espainiar estatuekin duen gatazkaren irtenbide bakarra, Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen aitortzan datzala aldarrikatzen du. Herri honen hitza eta erabakiaren aldeko lanean guztiok tinko pausuak ematearen beharra aldarrikatzen du; irtenbide demokratiko honi oztupoak jartzen ari direnei aurre eginaz eta Euskal Herri guztian, euskal herritar guztientzat eskubide guztiak lortu arte.*
- 4. Udal honek Euskal Herriaren etorkizunari begira konponbidearen alde lan egiteko apustua egiten du, gatazka historikoa gaindituko duen konponbide demokratiko eta negoziatuaren bitartez. Bide horretatik, marko demokratiko baten beharra azpimarratzen du udal honek, zeinak gaur aipagai ditugun*

gertakari hauek gainditzeaz gain, gatazkaren konponbidea eta ondorio guztiena ekarriko duena.

5. *Udal honek Leire Lopez Zurutuzaren askatasuna eskatzeko elkarretaratzea deituko du eta herritar guztiak deitzen ditu bertan parte hartzera.*
6. *Erabaki honen berri publiko egitea.”*

Jarraian, EAJ, EA eta EB alderdiek ondorengo mozio alternatiboa aurkeztu dute:

“Azken egunotan Frantzian eta Euskal Herrian hainbat atxiloteta eman dira, tartean Leire Lopez Zurutuza beasaindarra eta Udal honetako zinegotzi ohia.. Gertakari horrek gure herrian eta gure herritarren gain duen eragina kontutan izanik, EAJ, EA eta EBA Beasaingo udal taldeek behin eta berriro berrestu dituzten oinarriak gogora ekarri nahi dituzte osoko bilkurara aurkezten duten mozio honen bitartez:

1.- Beasaingo udaleko EAJ, EA eta EB udal taldeek berriro ere giza eskubide guztien aldeko aldarrikapena egiten dute eta kasu guztietan errespetatuak izan daitezela exijitzen dute. Zentzu horretan, giza eskubideen urraketa suposatzen duten jokabide guztien aurrean bere gaitzespena adierazten dute. Ez dugu onartzen, bakoitzaren diskurtso politikoaren interesen arabera soilik komeni denean salaketa egitea.

2.Egoera honetan, Leire Lopez Zurutuzaren senitartekoei gure elkartasuna adierazi nahi diegu, eta ohi den bezala atxilotuen familiartekoei Udal honek luzatzen dizkien laguntzak ere eskaini.

3.- Testuinguru honetatik abiatuta, egun hauetan atxilotuak izen diren pertsonen giza eskubideak ere zorrozki errespetatuak izan daitezen exijitzen dugu. Alde batetik, errugabetasun presuntzioaren eskubidea defendatu eta aldarrikatu nahi dugu, komunikabideen bitartez ematen den erruduntasun irudiaren aurrean. Zentzu honetan, neurri prebentiboak gehiegikeriaz erabiltzeak presuntzio hori deusez dezakeela ikusten dugu eta horrek pertsonengan kalte larriak sortzen ditu. Bestetik, atxilotuek dituzten eskubideak errespetatuak izan daitezen berme minimoak eman daitezela exijitzen dugu.

4.- Azkenik, edozein gatazka konpontzeko bide elkarrizketatua sinesten dugula aldarrikatzen dugu, guztien errespetutik abiatuta eta bakoitzaren egitasmoak azaltzeko eta gauzatu ahal izateko bideak jorratuaz. Lan horretarako soberan daude jarrera baztertzailak (Alderdien legearen aplikazioa) eta indarkeriaren erabilera (ETAren jardura).

5.- Erabaki honen berri publiko egitea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, EAeko ordezkariak Alkateari hitza eskatu dio eta honek baimena eman ondoren, ondorengoa adierazi du:

“Zuen mozioa testimonialismo hutsean geratzen da. Eskertzen da familiari eskaintzen zaion laguntza, baina falta dena da benetako irtenbidea ematea, hau probokatzen duen arazoari, hau da, Euskal Herria ez

errekonoiztea eta etorkizunari buruz erabakitzeko dugun eskubidea. Sakontasun politiko falta ikusten da mozio alternatibo horretan.

Zuen mozioaren aurrean gure jarrera abstentzioarena izango da.

Alkate jaunak (EAJ): “Esan duzuna laugarren puntuan aurreikusita dago. Alde batik, gatazka dago, baina gatazka hori konpontzeko bidea elkarrizketa da ideia guztiak errespetatuz eta bestetik, bi alde daude, bat ordenaren marginazioa eta ETaren indarkeria. Bi horiek baztertu egin behar dira eta elkarrizketara jo. Hori da guk egiten dugun azterketa eta ondo ezagutzen duzue.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, mozio alternatiboa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ; EA, EB)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz onartu egin da.

Alkatea jaunak (EAJ): “Oraintxe bertan emango dugu erabaki honen berri Web orrian.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, hamabiak eta hamarretan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.